

Euskal irakasleei, begirune osoz

Euskarazko irakaskuntzaren aitzindariak izan diren maisu-maistrak omendu zituen atzo Korrika 11k

Arantxa Iraola / Bilbo

Omen eta omen ari dira aurten Korrika 11ko kideak. Atzo, txanda, euskarazko irakaskuntzaren sustatzaileei egokitu zitzaion. Haien lana goretsiz Laudion, Sestaon eta Leioan eguneko kilometro bereziak egin ziren. Une hunkigarriak izan ziren, alor horretan hamaika ahalegin egin dituzten pertsona guztiei eskainiak.

MILAKA andra-gizonek hamaika ahalegin egin dituzte azken hamarkada hauetan Euskal Herrian hezkuntzaren mundua euskalduntzeko, eta AEK-k aurten omen-du egin nahi izan ditu. Ondorioz, euskal irakasleak izan ziren atzo Korrika 11n egin ziren kilometro bereziak protagonista nagusiak.

Aurrenengoa Laudion izan zen, goizeko 09:00ak aldera. Hiru andereño omenduek -Laudioko ikastolaren sortzaile eta sustatzaile sutsu Marije Learretak, Mila Etxezarragak eta Maite Larizgoitiak- gustura eraman zuten Korrika 11ko lekukoa Laudioko karriketan barna. Ez zen beren omenez egindako ekimen bakarra kilometro berezia izan, ordea. Bezperan, ostegun gauean, 200 lagun inguru bildu zituen afari hunkigarria egin zen hiru andereño horien gozamenarako. Bertan Laudio ikastolarekin lotura izan duten hainbat belaunaldik hartu zuten esku, eta AEK-ko Arabako arduradun Xabi Ugaldek esker oneko hitzak izan zituen hiru andrazko horientzat.



MIKEL MARTINEZ

Cueto ikastetxe publikoko Argiñe Iturregi, atzo, Sestaon lekukoa ematen.

Joxerra Etxebarria • ZIENTZIALARIA. EHUKO IRAKASLE KALERATUA •

«Ikasleen kilometroak ilusio berezia egin dit»

Arantxa Iraola / Bilbo

POZ handiz hartu du Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle kaleratuak AEK kideek eskaini dioten omenaldia. Atzo iluntzeko ekitaldiak beretzat oso esanahi berezia zuela esan zion EUSKALDUNON EGUNKARIA-ri.

■ Omendua zarelarik nola bizi duzu Korrika?

Oso ondo. Oso gustukoa dut. Denera, bukaerarako, bost egunetan egingo dut lasterkan. Izan ere, Korri-

kan parte-hartzea oso ona dela uste dut, forma fisiko zein mentalerako oso ona da.

■ **Guztien artean kilometrorik kutunena, hala ere, zuri eskainitako kilometro berezia izango da, ezta?**

Bai, baina beno kilometro berezi hori, azkenean, bat izan beharrean bi izango dira, eta horrexek ematen dit pozik handiena. Bigarren kilometro horrek oso esanahi berezia du niretzat.

■ Zer du ba berezi kilometro horrek?

Nire ikasle izan behar luketenek eskainitako kilometroa da. Niri dagokidan kilometro bereziaren ondoren datorren kilometroa propio erosi dute nik haiekin batera korrika egin dezadan.

■ Gustura egingo duzu, noski, haien ondoan lasterka?

Bai, oso gustura. Esan bezala, ikasleen kilometroa da hori, eta horrek ilusio berezia egin dit.

Bigarren kilometro berezia Sestaon egin zen. Ikastetxe publikoen alorra euskalduntzeko ahalegin franko egin duten euskal irakasleak ere omendu nahi izan ditu aurten AEK-k, eta asmo horrekin Cueto ikastetxeko Argiñe Iturregi eskaini zioten lekukoa. Aipatu ikastetxean euskarazko eredu bultzatzaile sendoa izan da emakume hori, eta ahalegin franko egin ditu horren alde irakasle zein guraso moduan. Arratsaldean izan zen kilometro berezi hori eta sestaoar askoren txaloaz gain AEK kideen esker ona jaso zuen. Gaur, berriz, omenaldi berezia egingo diote.

Joxerra Etxebarria Leioan eraman zuen lekukoa

Eguna biribiltzeko etapako azken kilometro berezia gauean izan zen, Euskal Herriko Unibertsitatearen gune nagusiaren alboan, gainera, Leioan. Bertan, euskal irakaskuntza euskalduntzeko ahalegin handia egin duen beste irakasle bat izan zen protagonista: Joxerra Etxebarria. Haur hezkuntzarako euskarazko ikas-materialak atontzen oso gaztetan hasi zen Etxebarria, eta Euskal Herriko Unibertsitatean ere ahalegin ugari egin ditu eskolak euskaraz emateko. Egun unibertsitatetik kaleratua dago, baina atzo, hala ere, zientzi fakultateko ikasleen babesa jaso zuen, haiek jaso baitzuten berak zeraman lekukoa.

Eguerdian, berriz, Korrika-ko omenaldi honen barruan mahai-inguru bat egin zen Bilbon.